

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak definitzen duena da egin behar diren gauzarik garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan, hau da, enpresa batek egin behar dituen funtsezko jarduerak, bere negozio-ereduak funtziona dezan.

### MANDEKOnen KASUAN:

Negozio batek funtziona dezan, funtsezko jarduerak ugari izan daitezke, eta gure proiektuaren kasuan funtsezko jarduera ekoizpena da. Diseinu pertsonalizatuz sortutako proiektua izanik, ezinbestekoa da ekoizpenari garrantzia ematea, hori baita funtsa ondoren bezeroek erosi dezaten. Beraz, gure denboraren tarte handi bat horretara bideratzea ezinbestekoa litzateke, proiektuak aurrera egoki egin dezan.



Hala ere, beste gauza batzuk ere kontuan hartu beharrekoak dira. Esaterako, nahiz eta enpresaren webgune ofiziala ez izan, oso garrantzitsua da enpresaren inguruko informazioa jendeari jakinarazteko jarduera ere, eta hori kanaletan azalduko jarduerak eta ekintzak eginez lortu genuke. Eta honekin zuzenki lotuta dagoen beste kontu bat, proiektua bera mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere, guzti hau eguneroko lanari eskeri burutuko litzateke.

Azkenik, garrantzia asko ematen ez zaion arren, arazoak konpontzeari ere denbora tarte bat eskaini behar zaio funtsezko jarduera bat baita. Noizean behin enpresan izan dituen arazoak aztertu behar ditugu eta horiei irtenbide bat aurkitzeko ahalegina egin. Honi esker enpresak, zein gure proiektuak aurrera egitea lortuko genuke, eta horrela bezero gehiago lortzea eta errentagarriagoa izatea.